

EDUKIEN AURKIBIDEA

<u>1. Hasierakoak</u>	1
<u>2. Instalazioa</u>	1
<u>3. Erabilera</u>	1
<u>3.1. Hizkuntza aukeratzea</u>	2
<u>3.2. Erabilera-aukerak</u>	2
<u>4. Desinstalazioa</u>	4

1. Hasierakoak

Eskuliburu honetan Word testu-prozesadorean integratutako Euskarazko OCRaren proposamenak kontsultatzeko modua azalduko dugu.

Tresna honek euskarazko testu batean egon daitezken akatsak detektatzen ditu eta bakoitzari dagozkion proposamenak eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Erabiltzaileak hitz hori testuan bertan hautatzeko edo proposamen-leiho berezian bilatzeko aukera izango du.

Tresna hau Windows 98/2000/XP/NT sistema eragilea instalatuta duten ordenagailuetan dabil. Hiztegi-kontsulta Microsoft Word 2000 edo Microsoft Word 2002 aplikazioan integratzen da.

2. Instalazioa

Euskarazko OCR plug-in-a testu-prozesadorean integratzeko, nahikoa da *setup.exe* fitxategian bi aldiz klik egitea eta, hortik aurrera, instalaziorako laguntzaileak ematen dituen argibideak jarraitzea.

3. Erabilera

Euskarazko OCR plug-in-a euskarazko testuak zuzentzeko da gai. Horregatik, testuko hitz baten proposamenak eskainiko baditu, horren hizkuntzak *Euskara* behar du izan. Testu-prozesadorean, testuaren hizkuntza adierazi behar da lehenik, eta euskara denean izango du gure tresnak proposamenak emateko ahalmena.

Beraz, tresnaren erabilera azaldu baino lehen, testuaren hizkuntza aukeratzeko egin beharrekoak azalduko ditugu.

3.1. Hizkuntza aukeratzea

Dokumentu berri baten hizkuntza aukeratzeko, *Tresnak* menuko *Hizkuntza* → *Ezarri hizkuntza* aukeran *Euskara* aukeratuko da.

Dagoeneko osatua dagoen testu baten edo hitz bakar baten gainean hizkuntza aukeratzeko, aurreko urrats berak egin beharko ditugu, testu osoa edo delako hitza hautaturik dugula.

3.2. Erabilera-aukerak

Instalatu eta hizkuntza aukeratu ondoren, tresna honek bi erabilera-modu eskainiko dizkigu:


Hitzaren kontsulta lasterra egitea. Horretarako, hitzaren gainean saguaren eskuineko botoiaz sakatzean zabaltzen den pop-up menuen sistema erabiltzen da

Proposamen-leihoa. Kasu honetan, proposamenak beste leiho batean aterako zaizkigu.

Jarraian bi modu hauek azalduko ditugu.

Hitzaren kontsulta lasterra egitea: erabiltzaileak, une horretako hitzaren proposamenak ezagutu nahi dituzenean erabiliko du aukera hau. Horretarako, nahikoa du hitzaren gainean saguaren eskuineko botoiarekin klik egitea. Word testu-prozesadorean modu lehenetsian agertu ohi den pop-up menuari **OCR** aukera gehitu zaiola ikusiko du.

Aukera honen gainean sagua jarri eta alboan, **Euskarazko OCRa...** aukeraren azpian, hitz horren proposamenak agertuko dira (ikus 1. irudia).



1. irudia. Pop-up menuko **OCR** aukeraren adibide bat


Proposamen-leihoa: Kasu honetan hitzaren proposamenak beste leiho batean agertuko zaizkio erabiltzaileari (ikus 2.irudia)

Pantaila honetan dauden aukerak hauexek dira:

Aurrera: Botoi hau sakatuz gero, hitzez-hitz aurrera egingo dugu programak hurrengo akatsa aurkitu bitartean. Aurkitu berri duen hitza urdinez markatua agertuko da leihoaren goiko kutxan, behekoan, berriz, proposamenak agertuko dira.

Gehitu: Proposamenen artean guk nahi dugun hitza agertuko ez balitz erabiliko dugu botoi hau. Erabiltzailearen proposamenak atalean (3.atala) aztertuko dugu botoi honen erabilera modu sakonago batean.

Ezabatu: Ikusi 3. *Erabiltzailearen proposamenak atala*



2. irudia. Proposamen-leihoaren adibide bat


Aldatu: Momentu honetan urdinez markatua dagoen hitza hautatutako proposamenarengatik ordezkatu da. Proposamenen listatik bat aukeratuz gero soilik aktibatuko da botoi hau.

Aldatu denak: Momentu honetan urdinez markatua dagoen hitza ez ezik, testuan dauden agerpen guztiak ere hautatutako proposamenarengatik ordezkatu dira. Proposamenen listatik bat aukeratuz gero soilik aktibatuko da botoi hau.

Laguntza: Botoi hau sakatzuz gero, proposamen-leihoari buruzko laguntza erakutsiko zaio erabiltzaileari. F1 sakatzuz gero ere laguntza fitxategi berbera ikusiko dugu, hori bai, proposamen-leihoa pantailan aktibo dagoela sakatu beharko dugu. On-line laguntza eskaintzen duen 3. irudiko fitxategia agertuko da orduan.

“Ez proposatu gehiago” aukera: Nahiz eta zuzentzaileak ez ezagutu, posible da hitz bat zuzena izatea (OCR, Omnipage...). Kasu hauetan, programak hitz hori topatzen duen bakoitzean erabiltzaileari erakusten dio. Aukera hau aktibatuz gero, ordea,

programak jakingo du erabiltzaileak hitz hori onartzen duela, eta gainontzean ez dio berriz erakutsiko. Hiztegi batean sartuko dira erabiltzaileak aukeraturiko hitz hauek, baina *Utzi* botoia sakatzean, leihoa itxi eta hiztegia hustu egingo da.




3. irudia. Laguntza eskaintzen duen fitxategia


Hitzaren kontsulta azkarra egitean, pop-up menuan *OCR* → *Euskarazko OCRa...* aukera hautatuz gero proposamen-leihoa ikusiko dugu ere.

3. Erabiltzailearen proposamenak


Posible da programak eskaintzen dituen proposamenen artean erabiltzaileak nahi duena ez agertzea. Demagun, pertsona edo enpresa baten izena asko errepikatzen dela gure testuan, eta ez dagoela programak erabiltzen dituen datuen artean. Erabiltzaileari aukera ematen zaio hitz horrentzat proposamen berri bat gehitzeko **Gehitu** botoiaren bitartez (ikus botoi honi buruzko azalpenak 3.2 atalean).



4. irudia. Proposamenik gabeko hitz baten adibidea



5. irudia. Gehitu botoia sakatu ondoren erabiltzaileak proposamen berria idatziko du




6. irudia. Proposamen berria gehituko da zerrendan eta (*) ikurra izango du berezko proposamenengandik nolabaik bereizteko.

Behin proposamena gehitu ondoren, zerrenda hasieran agertuko zaio erabiltzaileari (*) bat ondoren duelarik. Horrela, erabiltzaileak bereiztu ahal izango ditu sistemak emandako proposamenak eta berak sortutakoak.

Proposamen bat ezabatu nahi izanez gero, zerrendan aukeratu eta **Ezabatu** botoia sakatu beharko da. Erabiltzaileak sortutako proposamenak ezabatu ahal izango dira soilik.


4. OCRaren berezitasunak

Testu bat eskaneatu ondoren sortu daitezken akatsak ez dira teklatzean sor daitezken akats berdinak. OCRaren berezitasuna izan daiteke hitz bat bitan banatzea. Kasu honetan proposamenak ikusi ahal izateko beharrezkoa da testuko bi hitzak aukeratzea eta pop-up-ean proposamenak agertuko dira (ikus 7. irudia).



7. irudia. Testua digitalizatzean hitzen zatiketa gertatuz gero, beharrezkoa da lehenabizi zatitutako hitzak aukeratzea proposamenak ikusi ahal izateko.

Proposamen-leihoan, berriz, antzeko moduan jokatu behar du erabiltzaileak. Printzipioz programak bi hitz izango balira bezala funtzionatuko du, erabiltzaileak biak selekzionatu ezean (ikus 8. irudia).



8. irudia. Proposamen-leihoan erabiltzaileak OCR softwareak banatutako bi hitzak aukeratu beharko ditu proposamenak ikusi ahal izateko.

4. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Word testu-prozesadoretik kendu ahal izateko (menu-aukera berriak...), hauxe egin behar da:

Hasi menutik Ezarpenak → Kontrol-panela hautatu

Gehitu/Kendu programak aukera hautatu

Instalatu/Desinstalatu fitxako zerrendan, egin klik bi aldiz “Word-erako Euskarazko OCRa” aukeran.

Hori eginda, produktuak erabiltzen dituen hiztegi eta liburutegi guztiak gure sistematik ezabatuko dira.